



BANDOA

Herritar agurgarriak:

Hiri-Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) erredakzioagatik, udalak partaidetza prozesuaren lehenengo fasearen abiaraztea jakinarazi nahi dizue.

Prozesua **Herritarren Partaidetza Programa eta HAPOaren erredakzioaren prozesuaren aurkezpenarekin** hasiko da. Era berean, erredakzio lan taldearen aurkezpena egingo da. Aurkezpena **martxoak 9an 19:00tik 20:30 ra izango da Jubilatuen gaineko aretoan.**

Herritarren Partaidetza Programaren Aurkezpena

Lehenengo fase honetan, **partaidetza maila ezberdinak**, lehen jardueren **egutegia** eta partaidetza errazteko ireki diren **komunikazio kanal** desberdinak aurkeztuko dira.

Zer da Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra?

Aurkezpenaren bigarren zatian galdera honi erantzungo zaio eta **planak gure udalherrirako duen garrantzia azalduko da.**

Ekarpen-bilketarako galdeketak

Lemoarako nahi dugun hiri-ereduaren lehenengo ekarpenak jasotzeko asmoarekin galdeketa bat emango zaizue.

Herritarren Partaidetza Programa eta HAPOaren erredakzioaren prozesuaren aurkezpena

Noiz? Martxoak 9, osteguna. 19:00tik 20:30ra

Non? Jubilatuen gaineko aretoan

Nortzuk egin dezakete HAPOari ekarpenak?

Prozesuan parte hartzean interesatutak dauden Lemoako herritar guztiak.

Eta aurkezpenera ezin banaiz joan?

Presentzialki ezin baduzu parte hartu, behin saioa bukatuta aurkezpena formatu digitalean **Lemoa.tzen** web gunean aurkituko duzue.

Oharra: Eraikuntzen Inbentarioa eta etxebizitza-analisia

HAPOaren erredakzio lanen hasiera bezala Eraikitako Ondarearen Inbentarioa eguneratuko da. Helburu honekin, behar bezala akreditatuta joango diren erredakzio lan taldearen teknikariak fitxa bat osatuko dute eraikinen ezaugarriekin. Hau dela eta, zuen laguntza eskertuko dugu.

Aurkezpenerako gonbidapena zuen interesekoa izatearen esperantzarekin, eta alde zuretik zuen parte-hartzea eskertuz, aukera aprobetxatzen dugu zuek agurtzeko.

ANIMA ZAITEZ ETA PARTE HARTU!

Lemoako Alkate Andrea

Izp.: Saioa Elejabarrieta Amorrortu

